

KILOMETROAK 1985

1985. urteko urriaren 6an ospatu zen lehen aldiz Kilometroak jaia Urretxu-Zumarragan. Gure Ikastolak Legazpiko Haztegi Ikastolarekin batera antolatu zuen jaia. Bi ikastetxeek antzeko arazoak zituzten eta federazioaren aurrean askotan elkarrekin aritzen zirenez, eskaera batera egitea erabaki zuten. Ordura arte, Kilometroetan bildutako dirua lekuan lekuko ikastolen beharretara zuzendu bazen ere, 85ean Euskal Herria osoari onura ekarriko zion helburua hautatu zen: jatorriz erdaldunak ziren haurrek ikasketak euskaraz egin ahal izateko plangintza prestatzea.

Aurreko bi urteetan ere egin zuten eskaera bailarako bi ikastolek federazioaren aurrean, baina ez zen onartua izan. 1985eko urtarrilean, baiezko erantzuna jaso zuten eta berehala, bederatzi laguneko talde bat hasi zen lanean, gida batzordeko gainontzeko lanetatik liberatuta. Orotara, 1.500 lagun inguru aritu ziren lanean urte hartako Kilometroak egunean eta aurretik.

Zirkuituaren inguruan desadostasunak izan ziren. Hiru herriak lotuko zituen ibilbidea luzeegia zenez, Legazpik proposamen bat egin zuen eta Urretxu-Zumarragak beste bat. Federazioak, aurreko urteko Kilometroak antolatu zuen Orereta Ikastolako kideak bidali zituen biak aztertzeraz. Urretxu-Zumarragaren alde azaldu ziren, ibilbide guztia asfaltatuta zegoelako eta gure bi herriek komunikabide eta aparkaleku aproposagoak zituztelako. Horren truke, urteko kultur ekitaldi gehienak Legazpin egin ziren eta Kilometroen lehendakari kargua ere legazpiar batek izan zuen, Luis Ugartek.

Eguraldi zoragarria lagun, 50.000 lagun inguru etorri ziren Urretxu-Zumarragara. Ordura arteko jairik jendetsuena izan zen. Eguerdi parterako ez zegoen kamiseta edo txapelik salmenta postuetan, eta tabernetan edari eta janaki asko ere bukatu egin ziren.

Lortutako dirua, aurrez aipatu bezala, jatorri erdalduneko haurrak euskalduntzeko ikas-materiala sortzera bideratu zen.

Urtean zehar egindako ekitaldiak.-

* Kultur hamabostaldia Legazpin: mahai-inguruak, musika kontzertuak (tartean Oskorri taldearena), zine eta antzerki emanaldiak, haur eta helduentzako jolasak eta herri kirolak.

* Urretxu eta Zumarragan: Itoiz taldearen kontzertua, eta pilota eta futbito txapelketa.

Kilometro eguneko ekitaldiak.- dantzariak, txistulariak, trikitilariak, pailazoak, herri kirolak eta artisau erakusketak egon ziren ibilbidean zehar.

Ibilbidea (6 km).- Urretxuko Ipeñarrieta kaletik irten, Zumarragako Secundino Esnaola, Legazpi eta Soraluze kaleak pasa, eta Urretxuko aldapatik Santa Barbarara igo eta Pagoeta aldetik jeitsi. Ibilbidean lau atsedeen-leku zeuden: Zumarragako Euskadi plaza, Jose Maria Iparragirre Institutua, Santa Barbara eta Zuloaga baserriaren ondoko pagadia.

Etorritako jende kopua.- 50.000 lagun